Jacques Etxeberri

# Euskaltzain urgazlea

(Donibane Lohizune, 1921-12-16 / Baiona, 2008-3-22)

EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

EKIN ETA JARRAI



TEXTUGILE:
Jakes Etxeberri

ARGAZKIAK:
Xabier Salaberria

ARDURADUN:
"Geografia saila"rena, J. L. Lizundia

ARGITALPENA:
"Ikastola Elkarteak" eragina. GORDAILU. DONOSTIA
Bergara, 21, 3. ezk. Tf. 429779

27 AGO. 1977
EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

Handaiako hondartza, udako egunkitan, jendez beterik.

**LAPURDI ITSAS-HEGIA**

Lapurdi hegal honetan, gauza guztiek udatiarra (1) dute laudatzen eta goratzen. Bereziki uda sasoinean, eguzkia gainean delarik, iduri du dena: itsasoa eta itsas bazterra, soro eta olhanak, etxe xuri-gorri panpinak, pilota partidak edo gaineratiko zernahi besta guztiak udatiarrei bunuz mintzo direla.
Eta behin edo berritan hona etorriz gero, zenbat ez dira hemen berean laketzen eta kokatzen. Izan ere, lanbide handirik ez izan arren, itsas hegi hau da askorentzat bere bigarren egoitza.

(1) Udako hilabeteak edo denboraldi bat pasatzera kanpotik heldu direnak.



EUSKAL HERRIA

ikastola liburutegia

LAPURDI
ITSAS-HEGIA

HU-353/4-5

## UDA ONDOTIK

Udazkenak, neguak eta udaberriak berak, hilak iduri dute udako aldean. Haur eta gazteria guztia eskoletan dabil hamasei urteraino, eta frango hemeretzi-hogei urteraino, orduan hasten bait dituzte mail gorenetako eskolak.
Gero, ez dute gehienek beren gustoko lanik hatxematen ahal Euskal-Herrian, salbu bulegoetan eta ospitaletan. Eta beraz, gazteriak kanporat joan behar lanaren bila.
Zahar jendea, edo adineko jendea esan ohi dena, bada hainitz, erretiratzeko adinean sartua. Ipar Euskadi osoan bezalaxe, populua zahartuz doa beraz pixkaka, nahiz-eta diru freskoa edo sosa frango ibili xaharren eskuetan.

Laborantza da urtean zehar jenderik gehienarentzat lanbide.







Etxe bildu eta egoitz xarmantez landatua den eskualdea.

## IPARRALDEKO EUSKALDUNEN KEXUAK

Aspaldi danik zenbaitek (Paris aldetik bereziki) udatiarrentzat eta adineko xaharrentzat begiztatua zuen Lapurdiko itsas bazterra. Kutsadura gabeko egoitz eta udalekua eta lilitegi natural bat bezala proposatu dute, eta bistan da, hein handi batetan lortzen edo erdiesten ari dutela gauza hori gure kostalde honetan.
Horrela, sekulan ez bezala apailatu eta prestatu dute azken hogei urte honetan udatiarrei buruz. Dirua bazen ausarki horretarako, hemengo jendearentzat lantegi edo postu berri egokiak sortzeko ez-baina.
Orain, neurriz goiti bait zihoan mugimendua, herritarrak kexatzen hasiak dira han hemenka.



## BESTERIK

**Merkatalgoan**, saltegi eder hainitz bada, eta udan bereziki, ausarki saltzen da arroperia. Jendea frango bizi da hortatik. **Eskoletan**, irakasle eta enplegatuak, estatukoenak ere bai. **Herriko langileria**: herriko-etxearen kontu ari direnak zenbait ehun.

Donibane-Ziburuko ikastola

Hendaiakoa

Azkaingoa

## EUSKAL IDAZLEAK: XVII mendea

**Estebe Materre.**—Ez zen berenaz euskalduna, ez zen Euskal-Herriko semea halegia, baina adin batean euskaraz ederki ikasi zuen Donibane eta Ziburun. Liburu eder bat idatzi zuen: Doktrina (1.617 an).

Xehetasunak merezi ditu kasu horrek. Materre hori san Frantses ordenako apez fraidea zen, "Errekoletak" deitzen ziren ordenakoa. Errekoletak ekartzea jendearen argitzeko eta laguntzeko erdietsi zuten Donibaneko buruzagiek. Sorginen hauzi izugarriak izan bait ziren 1.609 an. Horien ondotik, bost errekolet etorri ziren 1.611 an. Donibane eta Ziburu arteko ugartetxoan komentu berria altxatu zuten eta horretan sartu ziren 1.613 an.

Jendarteko izan behar, ikusliarra frango bazuten. Eta are gehiago, bazuten orduko liburutegi on bat. Euskaltzale multzo bat izan zen komentu horretan, euskara landu duena eta euskarazko obrak sostengatu. Materre berak eman dite erakustera zein bidetatik ibil. Eta horren ondorioz sortzen da euskal-literatura Lapurdi xoko honetan XVII mendean.

**Axular.**—Aipatzeko da, Axular bera Donibanen egon bait zen apez lagun eta predikari lau urtez (1.596-1.600) apez berria zelarik, harik eta Sarako erretore izendatu zuten arte.

**Joanes Etxeberri.**—Ziburutarra... Donibaneko...



J. Antonio "Lehendakaria" eta bere heriotze oroigarria.

## OROITZAPEN ETA ESPERANTZA

Aipamen berezia zor diogu J. Ant. Agirre zenari. Euskadiko lehendakari izan, 36-ko gerla ondoan ihes egin eta desterruan hil zen Parisen (1960-III-22 an). Donibaneko hilerrian ehortzirik datza, hain maite genuen "Lehendakaria". Oroi eta otoi beraren eta bera bezala herriaren gatik bizia eman duten euskaldun guztien alde.

Baina ez gara inola horretan geratzen, etorkizunaren esperantzak biziki mugiaratzen gaitu. Mugaren alde bateko eta besteko euskaldunok, elkarrekin eta batera, jakingo ahal dugu bizkork— egun berrientzat bidea urratzen.

## IKASTOLA LIBURUTEGIA

### GEOGRAFIA SAILA

1.—Durangaldea
2.—Goiherri
3.—Baztan-Bidasoa
4.—Gasteiz
5.—Lapurdi Itsas-hegia